


# ek!

eta kitto!  
euskara elkartea

2022ko maiatzak 27 · 1230. zenbakia

## ABARKAK LOTU ETA DANTZA EGITERA



dica.

**URRATEGI**  
INTERIORISMO  
barne diseinua

Arragueta 27 20600 Eibar  
Arretxe 9 20730 Azpeitia

[www.urrategiinteriorismo.com](http://www.urrategiinteriorismo.com)



# EUSKARAZ

## ZABALDU AUKERAK

DESCUBRE TODO LO  
QUE TE OFRECE  
EL EUSKARA



UDAL  
EUSKALTEGIAK

♦ MATRIKULA  
EPEA ZABALDU  
Pasa de inscripción gratuita

**UDAKO**  
ikastaro trinkoak  
**UDAL EUSKALTEGIAN**

**MATRIKULA EPEA**  
**Ekainaren 1etik 20ra**

16 urtetik gorakoentzat  
**B2 eta C1 mailak**  
prestatzeko ikastaroak

**Ekainaren 27tik**  
**uztailaren 22ra**

(AURREZ AURRE, GOIZEZ)

**TARIFA BEREZIAK** ditugu

**Bista Eder**  
**10**

**-PORTALEA-**

euskaltegia@eibar.eus



Tf: 943 700 912



## Eibarko PROFESIO LIBERALAK



### ABOKATUAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

### AHOLKULARITZAK

#### GAURVE

Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.es  
consultores@gaurve.es

### ETXE ADMINISTRAZIOAK

#### CRISTINA BAZ LARRAÑAGA

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

### EGUREN&ASOCIADOS

Urtzaile 1, 2  
Tel. 943 20 41 94  
Fax. 943 82 00 06  
egurenyasociados@gmail.com

### GESTILAN

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### M<sup>a</sup> MERCEDES ARIÑO SANZ

Toribio Etxebarria 3, 1 ezk.  
Tel. 943 20 17 03  
Fax. 943 70 20 49  
m\_ari\_sanz@hotmail.com

Hemen zure lekua  
Informazioa: 943 20 09 18 (...eta kitto!)

# Jarraitu gaitzazu!



Eibarko LH eta DBHko ikasleek 1.000 lan inguru aurkeztu dituzte Ipurterre lehiaketara eta hauek izan dira irabazleak: LH 1-2 mailan Paule Martin (J.A.Mogel); LH 3-4 mailan Bittor Navarrete (J.A.Mogel); LH 5-6 mailan Pello Aranzeta (J.A.Mogel); DBH 1-2 mailan Elga Ariznabarreta (Eibar BHI), eta DBH 3-4 mailan Malen Aguirreamalloa (La Salle Azitain).

Ekainaren 2an taldearen historiaren errepasoa egingo dute Koro Gazteako abeslari gazteek. Ekitaldia Coliseo antzokian izango da, 20:00etan. EKGren ibilbidearen momentu desberdinak ikusteko aukera paregabea izango dugu. Abesti garrantzitsuenak, dantzak, antzerkia, bideoak... Eurekin batera, ibilbide horretan parte hartu duten gonbidatuak izango dira. Oihane Zabala eta Jon Alonso taldeko abeslariak eta Elena Martin zuzendaria elkarriketatu ditugu.

@etakitto



etakitto.eus

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

**ARGITARATZAILEA**  
...eta kitto! Euskara Elkarteak

**HELBIDEA**  
Urkizu, 11 - 20600 Eibar

**TELEFONOAK**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18  
603 598 285

**FAXA** 943 20 28 72  
**ASTEKARIAREN E-MAILAK**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK**  
elkarteak@etakitto.eus  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA**  
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

**ADMINISTRAZIOA**  
Marisol Uriarte  
**KOORDINATZAILEA**  
Ana Aizpurua  
**ERREDAKZIO-BURUA**  
Silbia Hernandez  
**DISEINUA**  
Maku Oruezabal  
**MAKETAZIOA**  
...eta kitto! astekaria  
**HIZKUNTZA ARDURA**  
Maider Aranberri  
**PUBLIZITATEA**  
Belen Ulazia  
**TELEFONOA**  
943 20 67 76

**AZALEKO ARGAZKIA**  
...eta kitto!  
**BANAKETA-ARDURA**  
Idoia Labado  
**TIRADA**  
7.800 ale  
**INPRIMATEGIA**  
GERTU koop. (Onati)  
**COPYRIGHT-A**  
...eta kitto!  
**LEGE-GORDAILUA**  
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



(\*...eta kitto!\*k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



### Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarteak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzeke eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

## Astean esanak



Kaleko edana helduek gazteei arretarik ez eskaintzearen sintoma da. Ez dugu asmatu sortzen gazteentzako erakargarriak diren aisialdi moduak. 13-15 urte betetzean, bat-batean, lehen entretenitzen zituen horrek jada ez die balio. Pandemiaren garaian jazarpen grina egon da. Kaleko edana ez da ugarritu, baina ikusgarriagoa izan da etxean sartuta geundelako eta, bat-batean, komunikabideetan agertzen hasi zelako. Ematen zuen inbidia kontu bat zela: guk ezin badugu, ez dezala inork egin. Mendeku grina egon da pandemiaren neurri deserosoenak bete ez dituzten gazteekiko. Esajeratu egin da: kaleko edana ez da gehiengoan praktika, ez lehen, ezta orain ere.

JUAN CARLOS MELERO, psikologoa

Helduek zinera joateari laga diote. Gazteak, aldiz, gutxi-naka bada ere, bueltatzen ari dira; hori bai, lehenengo asteetan bakarrik. Zine-aretoek txarto pasako dute. Sintoma bezala honakoa: "Doctor Strange" pelikula lehenengo asteburuan estatuko 1.200 pantailetan proiektatuko zuten, baita zazpi milioi euro jaso ere. Baina bigarren asteburuan kopuru hori 300.000 eurora jaitsiko da. Guztiok pelikula bakarra ikusten badugu, hori arriskutsua izan daiteke. "Alcarrás" filmarekin ere, jendea hasi da autore-zinea bueltatu dela esaten. 400.000 euro errekaudatu dira, barren! Orain dela sei urte milioia ere errekaudatuko zutenean! Pelikulek orain asteburua irauten dute; ahoz-belarrikoak dagoeneko ez du balio. Berehala ikusi behar dugu, twit-ean zabaltzeko.

ANGEL SALA, Sitges Jaialdiko zuzendaria

Ukrainako gerraren aurretik hala pentsatzen nuen, eta orain are gehiago: sinetsi dugu zorterik handiena izan duen belaunaldikoak garela, baina zorigaitzkoena izateko pauso batera gaude. Gure aitona-amonek eta gurasoek ere gauza bera uste zuten, eta gerra pairatu behar izan zuten; guri ere horrelakorik gerta dakiguke. Kontziente izan behar dugu mehatxua parean dugula, ez dugulako nazioarteko komunitate demokratiko bat; feudalismoaren itxura handiagoa du honek. Mundua, hein handi batean behintzat, oraindik ez da sartu etapa demokratikoan.

JUAN GOMEZ "TXONTA", ekintzaile soziala

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OILLAR BASERRITARRA** → Burrugarako balio ez duen bertoko oilarra. "Oillar baserritarrak ez dabe gauza jokorako".

**OILLAR INGLESIA** → Burrugarako oilarra. "Oillar ingles fiñ-fiña dauka kastatarako".



Idurre Iriondo

**Farmaziak**

- BARIXAKUA 27**
- EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- ZAPATUA 28**
- EGUNEZ | Castaño (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 29**
- EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)
- ASTELEHENA 30**
- EGUNEZ | Barandela (Z. Agirre, 4)
- MARTITZENA 31**
- EGUNEZ | Lekunberri (Isasi, 31)
- EGUAZTENA 1**
- EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 19)
- EGUENA 2**
- EGUNEZ | Elortza (J. Gisasola, 19)
- BARIXAKUA 3**
- EGUNEZ | Azkue (T. Etxebarria, 4)

**GAUEZ BETI**, 2022an,  
Mendinueta (Urkizu, 6)

**Telefono jakingarriak**

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

**Hildakoak**

- Jose Pulido Rebollo. 54 urte. 2022-05-18.
- Carmen Lizarralde Gorostidi. 80 urte. 2022-05-19.
- Felisa F. Bastida Iñiguez Mendoza. 90 urte. 2022-05-19.
- Carmen Carrero Maroto. 92 urte. 2022-05-20.
- Jose Luis Lage Agüero. 76 urte. 2022-05-22.
- Eduardo Gonzalez Barallibre. 83 urte. 2022-05-23.
- Esther Sarasua Gandiaga. 72 urte. 2022-05-23.

**Jaiotakoak**

- Karla Lange Aldazabal. 2022-05-12.
- Lilya Assaid. 2022-05-17.
- Malen Ezpeleta Perez. 2022-05-18.
- Rayan Karmaoui El Ghabali. 2022-05-18.
- Liher Sarmanton Arrizabalaga. 2022-05-24.



## T. Etxebarria, Zuloagatarren eta Julian Etxeberria oinezkoentzat izango dira

Toribio Etxebarria, Zuloagatarren eta Julian Etxeberria kaleak betiko peatonalizatzeko proiektua “laster” martxan ipintzeko moduan izango dela eman dute aditzera Udaletik. Udal gobernu- taldea egiten ari den plangintza orokorraren barruan kokatzen den jarduerarekin erdigunean oinezkoak protagonista izatea, eta, aldi berean, CO2 isuriak murriztea eta hiriko airearen kalitatea hobetzea lortu nahi dute.

Aurreko astean Jon Iraola alkatuek eta Pedro Escribano Trafiko

Batzordeko presidenteak emandako prentsaurrekoan azaldu zuten, hori gauzatzeko mugikortasunarekin eta hirigintza-konfigurazioarekin lotutako analisisietan espezializatutako taldea den Leber aholkularitza-enpresari eskatuzion azterlanean jasotako premisetan oinarrituko dira, “proiektua bideragarria izango dela eta modu fidagarrian gauzatu ahal izango dela bermatzeko”. Azterlan hori maiatzaren 17an aurkeztu zuten Trafiko Batzordean.

## Balkoiak eta leihoak lorekin apaintzeko lehiaketa antolatu dute laugarrenez

Udalaren Ingurumen Sailak balkoiak eta leihoak edertzeko lehiaketa antolatu du laugarrenez, Debegesa garapen agentziarekin elkarlanean. Parte hartu nahi dutenek ekainaren 8ra arte eman dezakete izena, Pegora Herriartarantzako Zerbitzu Bulegora joanda, Udalaren weborrian edo liburuxkaren QR ean eskuragarri egongo den formularioa beteta. Bes-

talde, ekainaren 2an, 18:00etatik 19:00etara tailer bat egingo da Portalean, eta kanpoko landareei buruzko gaiak aztertuko dira bertan (aurretik izena eman behar da). Informazio gehiago nahi izanez gero, 943 708408 telefonora deitu daiteke edo mezu bat bidali ingurumena@eibar.eus helbidera. Oinarriak [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) udal webgunean kontsulta daitezke.

## Asteburuan ezin izango da Ipurua kiroldegiko rokodromoa erabili

Eibarko Kirol Patronatotik jakinarazi dutenez, asteburuan itxita egongo da bertako rokodromoa. Azaldu dutenez, kirol ikuskizunetarako segurtasun eta ebakua-zio araudiak hala eskatuta, bulder koltxonetak dauden gunean ez da inolako trabarik egon behar pista nagusian kirol ikuskizunen bat burutzen ari den bitartean. Hori dela eta, barixakutik domekara bitartean, rokodromoa ezin izango da erabili, eskubaloi partiduak jokatuko dira eta.



## Erreal Plaza itxita egongo da ekainaren 10era arte

Erreal Plazaren sarbidea itxita egongo da ekainaren 10era arte, bertako ikus-entzunezko ekipamendua hobetzeko lanak egiten hasi direlako. Hain zuzen ere, argiztapenean, soinu eszenikoan eta komunikazioetan egingo dira hobekuntzak. Argiteria eszenikoaren kasuan, ekoizpen bakoitzak eskatzen dituen argi-baldintzei erantzuteko lanak egingo dira. Eta soinu eszenikoari dagokionez, audio-seinaleen banaketa-sareak diseinatu dira, seinale-azpiegitura indartsua, malgua eta moldakorra izan dadin eta zerbitzua emateko soinu-premia desberdinei.



## Energia kontsumoari lotutako gaiak azaltzeko bi tailer antolatu dituzte

Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak, Eibarko Udalarekin elkarlanean, Energia Argitu programaren baitan, bi tailer antolatu ditu ekainaren hasierarako. Ekainaren 1ean, 18:00etan, Portalean (KZgunean), etxeko kontsumoa tarifa elektriko berrietara nola egokitu ikasteko eta hortik abiatuz erabaki egokiak hartzeko balio duen tailerra antolatu dute. Eta ekainaren 8an, 18:00etan, Portaleko B batzartokian Komunitate

Energetikoak zer diren eta nola funtzionatzen duten ezagutzeko tailerra antolatu dute.

Tailerretan parte hartzeko alde zuzena ematea beharrezkoa da (lehen tailerrera, maiatzaren 29a baino lehen eta, bigarreneko, ekainaren 6rako). Horretarako, argitu@gipuzkoa.eus helbidera idatzi daiteke edo 628 532 248 / 605 757 687 telefono zenbakietara deitu. Informazio osagarria [www.argitu.eus](http://www.argitu.eus) helbidean dago eskuragarri.

## Kartzelan gaixotu ondoren hil zen Josu Retolazari aitortza egin diote

Egiari Zor fundazioak orain dela 35 urte hil zen Josu Retolaza preso eibartarra omendu zuen domekan. Retolazari minbizia diagnostikatu zioten kartzelan, eta hil baino gutxi lehenago utzi zuten baldintzapean aske. Azpimarratu zuten, Retolazarena ez zen salbuespena izan: "Euskal Herriko gatazka politikoaren testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketa larriak ehundaka, milaka izan dira. Horiei guztiei aitortza, erreparazioa eta berriro ez gertatzeko bermeak zor dizkiegu, bizikidetzara oinarritu duen gizarte berria eraikitzen jarraitzeko".



**PUBLI RESA**  
objeto publicitario

merchandising  
serigrafía  
lanerako erropa

[www.publiresa.com](http://www.publiresa.com)  
[publiresa@publiresa.com](mailto:publiresa@publiresa.com)  
943 701 497 / 615 799 419  
Armagin, 3-5 behea

**ek!**

Zure publizitatea herriko aldizkarian

**688 621 535**  
[publizitatea@etakitto.eus](mailto:publizitatea@etakitto.eus)

**FUNEUSKADI**  
Grupo Kestika

**FUNEARIARA MUGICA**  
Funerakadi

**TANATORIO EIBAR**

**TANATORIO CREMATORIO ELGOIBAR**

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Eibar: Otaola, 27  
Elgoibar: Xixillon, s/n, SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)

Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20  
Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ernua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



## Oinezkoentzat espazioak berreskuratzeko plana

EAJ-PNVk espazio publikoa oinezkoen ikuspegitik berreskuratzeko plan bat aurkeztu du. Besteak beste aparkalekuetarako perimetro-eremuak ezartzea eta Ego Gain eta Azitain arteko kaleak oinezkoentzako pasealeku handi bihurtzea proposatzen dute. Horrekin batera, alderdi nazionalistak ondare arkitektonikoa kontserbatzearen, Ego ibaia berreskuratzearren eta gaur egun Guardia Zibilaren Kuartelean eta Hilerrian dauden espazioak askatzearen alde egin du: “Bi espazio horiek 15.000 metro karratu betetzen dute gaur egun, eta berdegune gisa erabiliko lirateke. Horrez gain, ibilgailuak hiritik ateratzeko plan sendoa daukate, saihebidetik hurbil aparkalekuak ipinita eta, aldi berean, kale ugari oinezkoentzako lagata”. Horrela, “kale bizigarriagoak eta, aldi berean, merkataritzaren ikuspegitik

erakargarriagoak” lortzea bilatzen dute. Josu Mendicute bozeramaileak azpimarratu zuenez, “gure historia etorkizunera proiektatu behar dugu. Plan Orokor berri bat diseinatzen ari gara, eta orain hiriaren etorkizuna markatuko duten erabakiak hartzeko unea da, guztion artean eraiki behar dugu etorkizuna”.

Proposamen nagusien artean honako hauek daude: Barrena-Barakaldo berroneratzea eta oinezkoentzako kalea izatea, ibaia agerian dagoela (Ego Gainen bezala); geltoki intermodala, saihebidetik sarbide zuzena duena eta Matsaria lehengoratzten duena; 135.000 metro karratu industriarako gordetzea Azitain, Matsaria eta Ibur-Errekan; eta libre dauden lurzoruak etxe berriak egiteko okupatu beharrean, daudenak birgaitzea, erabili bariko eraikinak berrerabilita.



## Talo-postua bihar goizean eta erronkaren aurkezpena eguaztenean

Asteburu honetan ospatuko den Euskal Jaiaren harira, Gure Esku Dagok talo-postua ipiniko du bihar goizean, 10:30etik aurrera, Toribio Etxebarria kalean (Deportibo parean). Taloak 3 eurotan salduko dituzte eta, txorizo edo hirugiharrekin nahi izanez gero, 5 eurotan. Horrez gain, uztaileen 2an egingo den “Pirinioetako bidea” erronkaren kamisetak ere salduko dituzte eta bertan parte hartzeko izena emateko aukera ere egongo da. Hain zuzen ere, egitasmoari buruzko informazioa ezagutzera emateko aurkezpena eguaztenean, ekainaren 1ean egingo da, 19:00etan Topalekuan.



## Azken ostiraleko ekitaldia egingo da gaur 19:30ean

Etixerat eta Sare, euskal presoen eskubideen aldeko elkarteek deituta, gaur arratsaldean, 19:30ean elkarretaratzea egingo da Untzagan, hilero azken barixakuan egin ohi den bezala, euskal preso eta iheslariak etxera ekartzea eskatzeko.





Eibarko UEUfesta ekainaren 1ean egingo da, 18:00etatik aurrera. UEU

Informazio  
gehiago:



## Markeskuan festa egingo dute UEUren 50. urteurrena dela eta

UEUren Udako Ikastaroeek 50 urte beteko dituzte aurten eta, horiek hasi aurretik, UEUfesta egingo dituzte, “elkartzeko, ospatzeko eta UEUko komunitatea omentzeko. UEUren bazkideak eta lagunak Euskal Herri osoan zehar daude, eta nazio ikuspegi duen erakundea izanik, hainbat hiriburutan UEUfesta antolatu ditugu”, euren berbetan. Lehenengo ekintza Eibarren egingo da ekainaren 1ean, 18:00etan, Markeskua jauregian (UEUren egoitza nagusian), eta hurrengoak Donostian (2an), Iruñean (7an), Bilbon (9an), Gasteizen (15) eta Baionan (16) egingo dira.

Ekintza hauen bitartez UEUren izaera gertukoa eta herrikoia islatu nahi dute, eta elkartzeko, ospatzeko eta UEUko komunitatea omentzeko ekitaldiak izatea da euren nahia.

“UEU betidanik izan da festazalea, eta 50. urteurren honetan ezin zuen hutsik egin ospakizun kutsuko jarduerarik”, diote UEUkoek. Izan ere, euren ustez, unibertsitate munduan askotan gauzak oso seriotik egiten dira, baina horrelako festak ere egin behar dira.

### Gazteak, beteranoak, zizka-mizkak eta sorpresak

Ekainaren 1ean Eibarren egingo den UEUfesta kutsu eibartarra izango du, nola ez. Horregatik, Ane Sarasua UEUko Idazkari Nagusia eta Leire Narbaiza UEUko bazkidea izango dira aurkezleak. Gero, unibertsitatearen izaerari jarraituz, jakintza eta festa uztartuko dituzten ekintzak egingo dira. Gazteak izango dira protagonista lehenik. Izan ere,

Iker gazte eibartarrek izango dute hitza eta Miren Atristain biologoa, Jone Amuategi bioteknologoa, Arrate Hernandez ingeniaria eta Iraia Muñoa bioteknologoa egongo dira Markeskuan. Ikertzaileak dira lau eibartarrak eta, gazteak izan arren, bidea egiten dihardute zientziaren munduan.

Gazteek beteranoei emango diete lekua. Horrela, batetik, Felix Elortza biologoa izango dugu; eta bestetik, Eduardo Apodaka filosofo eta soziologoa.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, ikerlarien hitzaldiez gain, bertsoentzako eta musikarentzako tokia ere egongo da, eta Mikel Karton ibiliko da festa girotzen.

Jatekorik ere ez da faltako eta, ezer aurreratu ez badute ere, antolatzaileek aipatu dute ezustekoak izango direla UEUfesta.

Hori guztia ez galtzeko, bertan parte hartzeko izena eman behar da komunikazioa@ueu.eus helbidera idatziz eta, informazio gehiago lortu nahi izanez gero ere, bertara jo daiteke.

# Baserritar jantziek kalea hartzen duten Euskal Jaia

I. Pala Txapelketarekin eta larrain-dantza ikastaroarekin motorrak berotzen joan den egitarauak atzoko talogintzarenarekin paso emango dio gaurtik domekara arte asteburu betea eskainiko digun Euskal Jaiaren 57. edizioaren mamia. Jolasak, kontzertuak, azoka, herri-kirolak, herri-afari eta bazkariak, dantza jaialdia... izango da bakoitzaren gustora egokitutako dastatzeko nahiko elikagai.

**G**aurkoan gaztetxoek bihurtuko dira hasierako protagonista. Bizikleta Plazan garatuko da Udaleko Kultura sailetik antolatutako “Kalian Jolasian”, umeei hainbat jolas eta jokotan parte hartzeko aukera eskainiko dien programazioa. 17:00etan hasi eta 19:00etan amaituko da ekimen hori. Jarraian musikak hartuko du lekukoa eta gaueko/goizeko 03:00ak arte iraungo du. Horko lehen tartea Game Of Txaranga (GOTx) elektrotzarangaren eskutik etorriko da, herriko kaleetatik izango baitira 21:30ak arte. Afaldu ondoren Untzagako karpa izango da jaiaren gune nagusia, bertan Mconak eta Mugi Panderoaren kontzertuek izango dutelako hitzordua: Mconak 23:00etan hasiko da eta 00:30ean amaitu, ondoren Mugi Panderoak erromeria eskaintzeko 01:00etatik 03:00etara.

## Euskal kutsuko azoka

Bihar goizeko 10:00etatik bertatik erakutsiko dituzte euren produktuak Artisau eta Baserritarren Azoka



kan parte hartuko dutenek stand-etan. Eta ordu berean Euskal Jaiko pala txapelketaren lehenengo edizioaren finala jokatu da Asteleena frontoian. T. Etxebarria kalean egingo den azokara itzulita, bost baserri-tako produktuak eta Eibart elkartearen inguruan batzen diren 17 artisauen lanak ikusi ahal izango dira (eta baita erosi ere, jakina!). Egurdiko 12:00etan herri-kirolarien eta bertsolarien txanda izango da. Jose Mari Bustinza “Tubi”, Jokin Eizmendi, Garbiñe Lopez de Uralde, Ruth Linaza eta Jon Loiola kirolariek hainbat lan-saio egingo dituzte, modalitateetan banatuta, Ibon Iza esatariak lagunduta: “Besteak beste, harri-jasotzea, lasto eta ingude jasotzea, trontza eta lasto jaurtiketa egingo dira”. Bertsotan Eneko Beretxinagak eta Mikel Iturriztekin jardungo dute eta ez ahaztu goiz osoan zehar talopostua ere egongo dela, “Gure Esku Dago ekimenaren eskutik”.

Arratsaldean, bestetik, kale-animazioak hartuko du tarte hasteko. Eibarko Trikitilariak-en eskutik trikipoteoa izango da 19:00etatik aurrera, eta Kittu musika taldeak, bestetik, 20:00etan hasiko du bere saioa. Biek ere erdiko kaleetatik zehar joko dute 21:30era arte, kantu-afaria hasi arte. Ohikoa denez, karpan izango da afari hori, Biziminak prestatuta. Aurten, dena dela, “kantuak mahaitik abestuko dira, jendea oholtzara igo barik”, antolatzaileek diotenez. Hori bai, “Kittu musika taldeak lagunduta”. Behin hori amaituta, erromeriaren ordua izango da, Jainaga eta Narbaizaren eskutik.



Zapatuko azokan 17 artisauk hartuko dute parte. Gure Esku Dago-k talo-postua izango du.

## >>> Zapatuan Azoka eta herri-kirolak izango dira goizez, kale-animazioa arratsaldez eta kantu-afaria eta erromeria karpan gauzez

### Kostaldeko dantzak

Euskal Jaiko Dantza Jaialdian oraingoan Donibane Lohitzuneko Begiraleak dantza taldeak hartuko du parte Kezka Dantza Taldearekin batera. Azken urteetako bidetik jo dute antolatzaileek oraingoan ere, kanpotik talde bakarra ekarritu. Kezkako Oier Araolazak dioenez, “hainbat ediziotan handik eta hemendik taldeak ekarri ondoren, Ezpalak zikloarekin amaitu genuenetik bide berri batean sartu gara. Ezpalak Jaialdiak beste errit-

mo bat eskatzen zuen, antolaketa lan handiagoa, eta orain nahia-go dugu gertukoekin jardun eta gustora dantzatu, gure zaletasuna partekatzeke”. Iruñeako Gureak Dantza Taldea ere izan da azken aldian, Eibarko Kezkarekin duen harreman berezia aprobetxatuz, eta oraingoan Iparraldetik dator gonbidatua: “Handik ere askotan gonbidatu gaituzte, baina oraindik ezin izan gara bertara joan. Eurek orain bazuten aukera eta baietz esan digute. Klub Deportiboa moduko elkartea da euren, kirolik gabe bakarrik kultura arloan lan egiten badute ere: antzerkian, literaturan...”. Donibane Lohitzuneko dantza taldeak lan handia egin zuen 80. hamarkadan “galtzen zeuden plazako dantzak berreskuratzen, dantza-jauzien eta musikuen bitartez”. Begiraleak-ek eta Kezkak, talde biek, oraingoan kostaldeko dantzak eskainiko dituzte domekako saioan: “Kaskarot dantza, Lekeitioko Kaxarranka, Ondarruakoa... Eta amaieran kontradantza egingo dugu eurekin”.



Zornotzako Kittu taldeak girotuko du zapatua, gauean kantu-afarian laguntzeaz gain.

## >>> Iparraldeko Begiraleak dantza taldea izango du lagun Kezkak etziko Dantza Jaialdian

Hori bai, Urkizutik irtengo den kalejira ordu laurden aurreratu dute, goizean jokatu den txirridulari proba Urkizun amaituko delako: “Jaialdia iragarritako orduan hasiko denez, eguerdiko 12:30ean, kalejira martxa lasaiagoan egingo dugu, Depor aurrean ere dantza egiteko aprobetxatuz”.

### Larrain-dantza

Dantza horrekin amaitzen dira azken edizioetan Eibarko Euskal Jaiak. Baita hasi ere, aste batzuk lehenagotik abiatzen dute-lako larrain-dantza ikastaroak. Ingurutxo eta jota oinarri hartuta eraikitako dantza suitea da

## >>> Patxi Perez eta Konpainiak girotuko du domeka arratsaldeko erromeria

larrain-dantza. Ordulariaren orratzen kontrako noranzkoan mugitzen den zirkulu irekia osatzen duten bikoteetan dantzatzen da. Lizarran du jatorria, baina litekeena da iraganean hedadura handiagoa ezagutu izana. Dantzaren zatiak honakoak dira: sarrera, katea eta zubia, fandangoa eta abestia, balsa, jota zaharra, bolera eta azken korrikaldia. Musika beti interpretatzen da dultzaina eta danborarrekin.

Araolazak dioskunez, “70. hamarkadan egin zen Euskal Dantzari Egunaren bueltan dantza nazional gisa hautatu zuten larrain-dantza; hortik hainbat herritara zabaldu izana eta hainbat ikastaro antolatzea”. Hala ere, onartzen du ez dela dantzan has-teko dantzarik samurrena, bera hedatzeak gehiago duela emozionaletik edo sinbolikotik. “Norma-lagoa da Eibarren urtetan dantzatu den arin-arina gertuago sentitzea”. Aurrekoarekin lotuta, domekan berriro gurean izango den Patxi Perez eta Konpainiaren erromeriarekin lotutakoa azpimarratzen digu: “Hasieran inor gutxi ausartzen bazen balsa edo jauzi egitera, urteen poderioz zabaltzen joan da eta gaur da eguna jendea animatu eta erruz parte hartzen duena. Espektroa zabaldu egin da eta, aldi berean, normalizatu”. Horretarako dira erromeriak.



## Tantanez Tantan olatuak euskaraz busti zituen herriko bazterrak



Urkizuko iturritik hasita Untzagaraino eramán genuen Eibarko euskaltzaleok euskararen gantxilla. Herriko bazterrak jendez lepo, eguraldia lagun, giro paregabea egon zen joan den zapatu eguerdian. Amaieran, Untzagan, omenaldia egin zitzaizen AKeri eta Super Akeei azken hilabeteotan euskararen alde egin duten lanarengatik. Eibarko Euskalgintza osatzen dugun taldeok eskerrak eman nahi dizkiegu ekitaldian parte hartu zuten herritarrei, ibilbidea zaintzen egon ziren udaltzainei, eta baita ekitaldia girotzen lagundu zutenei ere: Eibar BHI-ko hankapaloak eta haien laguntzaileak, Marisol Arrillaga eta Musika Eskolako soinu-joleak, Mikel Arrillaga, Miren Gisasola eta Ustekabe txaranga.



14 TANTANEZ TANTAN





# Eibarko Koro Gaztearen historia oholtza gainean

Ikasturte amaiera iritsi da eta, horrelakoetan ohituta gaituzten bezala, ikuskizun berezia eskainiko du Eibarko Koro Gazteak. Ekainaren 2an, eguena, izango da Eibarko Coliseo antzokian, 20:00etatik aurrera. Talde gaztea, dinamikoa, alaia, modernoa, ausarta... Kalifikatibo asko erabili daitezke Elena Martinek zuzentzen duen taldea deskribatzeko. Baina guztiaren gainetik elkarlana eta familia bereko kide izatearen sentimendua dago. Datorren egueneko ikuskizunarekin gozatu nahi duzuenok adi ibili beharko duzue sarrerak eskuratzeko. Eibarko Koro Gaztearekin ohikoa izaten baita "dena salduta" egotea.

Testua **ANA AIZPURUA** Bideoa **YANIRE SAGREDO**

**O**ihane Zabala eta Jon Alonso Koro Gazteako kideak dira eta eurekin elkartu gara barixaku arratsalde batean. Egun garrantzitsua da eta eskertzekoa da minutu batzuk guri eskaintzea. Entsegu orokorra daukate 17:00etatik aurrera. Luze joango da. Data handia hurbiltzen denean entsegu orokorrak luze joaten dira. Gurekin elkarriketa egin eta gero, Coliseoko teknikariekin daukate hitzordua, kide guztiak elkartu eta entsegua hasten denerako arlo teknikoa erabat lotuta izateko. Egun guztia daramate lanean bi gazteek. Eguna ez, asteak eta hilabeteak. Oraingo honetan beraiek hartu dute ikuskizunaren pisu handiena eta urduritasuna somatzen da. Eta ilusioa. Elena Martin zuzendaria etorri da. Elena ezin zen falta. Zuzendaria baino zerbait gehiago da.

Azken urteak ez dira errazak izan. Gauza asko hankaz gora jarri ditu ditxosozko pandemiak. Elenak gogoratzen duenez, "azken kontzertua iaz egin genuen aire librean Txaltxa Zelaian, eta Coliseoan egin

## Ekainaren 2an taldearen historiaren errepassoa egingo dute Koro Gazteako abeslari gazteek

genuen azkena "EKG 10 urte" izan zen 2019an. Pandemia hasizenean, 2020ko apirilean, bertan behera laga behar izan genuen egun gutxitara estreinatu behar genuen musikala. Sarrera guztiak salduta zeuden. Gogorra izan zen, lan handia zegoen atzean".

Beraz, pozik igoko dira berriro Coliseoko oholtza gainera. Ziklo bat amaitzeko kontzertu aproposa izango dela diote. "Aldaketa batzuk egongo dira, eta, nahita egin ez badugu ere, hori guztia isladatua geratuko da datorren asteko kontzertuan. Errepassoa egingo diogu Koroaren historiari. EKGren ibilbidearen une desberdinak ikusiko ditugu abesti garrantzitsuen bidez.

Agian ez dira gure abesti onenak edo dibertigarrienak, baina bai izango dira inpaktu gehien sortu dutenak, hau da, edozein arrazoi-rengatik memorian geratu direnak", dio Jon Alonsok.

Abestien aukeraketa modu naturalean egin dutela esan digu Oihane. "Ez zaigu asko kostatu, gauzak berez joan dira ateratzen, denon artean, eta hizkuntza aldetik ere oreka bat bilatu dugu: euskarazko, erdarazko eta ingelesezko kantua egingo ditugu". Pozik daude emaitzarekin. Batez ere erreperitorioarekin, Elenak esaten duen moduan, "in crescendo" doalako.

### Sentimenduz betetako kontzertua

"Danetik egongo da kontzertuan. Abesti bakoitza emozio edo sentsazio bati lotuta dago. Abesten ditugun bazkoitzean oroitzapen horiek berreskuratzen ditugu, eta hori jendearekin partekatu nahi dugu. Koroak sortzen dizkigun emozioak publikoarekin batera bizi nahi ditugu", azaldu digute.

13 urte igaro dira jada Eibarko Koro Gaztea sortu zenetik, ilusio





Koroak sortzen dizkien sentimenduak publikoarekin partekatuko dituzte Coliseoan.



Bideoa  
ikusteko:



Jon Alonso, Elena Martin eta Oihane Zabala.



Izugarri gozaten dute ohol-tza gainean Koro Gazteko kideek.

handiz eta abesteko gogo handiarekin sortu ere. Ez dira gutxi izan hamarkada luze horretan taldeak bizi izandakoak: taldekide aldaketak, lehiaketak, musikala, telebista, elkarrizketak, hamaika ikuskizun ...

Historiak aurrera darrai, eta egueneko kontzertuan denetik egongo dela aurreratu digute. Denetik zentzu guztietan, sentimenduen aldetik baina baita musika-formatu eta erreperitorio aldetik

ere. Betiko moduan, dantzek eta antzerkiak ere lekua izango dute. "Ustekabeko musikariak gurekin egongo dira eta baita Sostoa abesbatza eta Juan Bautista Gisasola musika eskolako txikien abesbatza ere. Antzerki munduko jendea ere egongo da: Juan Cano, Maite Lorenzo, Karmele Etxeberria... "Gure historian eta bizitzan oso inportanteak izan dira horiek guztiak. Lagunak dira. Denok ezagutzen

dugu elkar, eta gauza asko bizi izan ditugu batzuk besteekin", diote.

### Elkarlana eta maitasuna

Elkarlanaren garrantzia aipatzen du Elenak. "Hori da nire filosofia pertsonala, eta kasu honetan Oihane eta Jonek egin duten lana izugarria izan da: sortzaile, produktore... Zenbat ordu eman dituzte!". Ikus-entzunezko komunikazioa ikasten ari da Oihane, eta, Koroaren ibilbidearen errebaso honetan osagarri izango dira bideoak.

Jon eta Oihane bat datoz elkarlanaren ideiarekin eta taldean dauden maitasun-sentimenduekin. Koroak erakutsi die zer den taldean lan egitea, elkarri laguntzea, konpromisoa... "Sorkuntza honetan ere kide guztiok hartu dugu parte. Guztion ideiak eta aportazioak daude", esan dute.

Hau guztia irakurri ondoren, zeinek ez dauka gogorik datorren astean Coliseora joateko eta EKG-ren eta, bide batez, gure bizitzaren errebasoa egiteko?





SPEAKER'S CORNER  
DE CincoDías

**sarenet**

CONSEJERÍA ECONÓMICA Y EMPRESARIAL

Seguridad para entornos de IoT Industrial

Desde 1985

**dkt**  
Debabarreneko  
Komunikazio  
Taldea

# Debabarrena BIEMH azokan

Lau urteko geldialdiaren ostean, aurtan, ekainaren 13tik 17ra bitartean, batuko dira berriz makina-erremintako ekoizle eta bezeroak BIEMH 2022 azokan. 26 herrialdetako 1.200 enpresak baino gehiagok parte hartuko dute Barakaldoko BECen, tartean Debabarrenekoak ere bai, euren produktuak, berritasunak eta zerbitzuak bezeroei erakutsi eta harreman komertzialak egiteko gogoz.

C-10

# BIEMH bueltan da

DEBABARRENEKO 32 ENPRESAK HARTUKO DUTE PARTE BERTAN

AFM Makina-Erreminta Ekoizleen Elkartearen ustez, ekainaren 13tik 17ra bitartean BECen egingo den BIEMH 2022 makina-erremintaren azoka inoiz baino beharrezkoagoa da, “gaur egun bizi dugun egoera konplexuaren aurrean”. Horregatik, azken hamarkadan egon den parte-hartzaile kopuru handiena bilduko da BECen: 26 herrialde-tako 1.200 enpresa baino gehiago. “Izen-emateen kopurua eta aurten egin diren antzeko ekintza txikiagoetan atzeman dugun giro ikusgarria kontuan hartzen baditugu, BIEMHren 31. edizioko parte-hartzea historikoa izango dela aurreikusitako dezakegu”, diote AFMtik.

Enpresa horien artean Debabarreneko 32 izango dira: Itziar-Deba industrialdean dauden Alteyco, Chiron, Dexis, GER, Gurutzpe, Mosnic-Irudex, Tecnofuelle eta Zeatz; Elgoibarko Berkoa, Burge-lu, Cometel, Danobat, Fanuc, Geminis, Ideko, IMH, Maher, Sariki, Smartpm eta Unceta; Eibar-ko Egasca, Izalan, JAZ Zubiaurre, Metronic, Neurtek eta Tekniker; Ermuko Blum, Cortesa, Innocut eta Havel; Mendaroko Urkunde; Soraluzeko Elesá-Ganter; eta Osintxuko Soraluce.

Parte-hartzaileak sei pabilioitan banatuko dituzte, azpisektoreka: industriarobotak, manipulazio-sistemak, kontrolerako softwareak,

industria-automatizazioak, tratamenduak, osagaiak, gehigarriak... Eskualdeko enpresa gehienak lehen pabilioian egongo dira kokatuta.

Makina-erremintaren sektorea oso bizkor ari da garatzen. Hori dela eta, azterketa eta gogoeta egiteko asmoz, BIEMHk arreta berezia jarriko die berrikuntzei eta aurrerapen teknologikoei. Horrela, fabrikazio aurreratuan dabilen enpresek atal bereziak izango dituzte. Esaterako, 3D inprimaketan jarduten dutenak, ADDIT3D atalean elkartuko dira eta digitalizazioan espezializatutakoak BeDigital atalean.

## Hitzaldiak eta festa

Enpresek euren produktu eta zerbitzuak eskaintzeaz gain, zenbait hitzaldi antolatu dituzte BIEMHren inguruan. Hala, nazioarteko 55 hizlarik sektoreari dagozkion gaiak jorratuko dituzte: industria-mantenuaren berrikuntzak, automatizazioa eta ro-

**"Atzeman dugun giro ikusgarria kontuan hartuta, partehartzea historikoa izango dela aurreikusitako dezakegu"**




botika, eraldaketa digitala eta fabrikazio aditiboak. Horiek eta azokaren gaineko beste hainbat eduki zuzenean eskainiko dituzte BIEMH TV telebista-katearen bitartez: produktu berriak, sektoreko profesionalen lekukotzak...

Bestalde, hilaren 15ean, eta giro lasaian negozio-harremanak sustatu asmoz, BIEMH Fest izeneko jaialdia antolatuko dute Bilboko kaleetan, 19:30etik aurrera.

## Euskal industriaren oinarri

Orain dela egun gutxira arte AFM makina-erremintaren klusterreko presidentea izan den Cesar Garbalenak esan bezala, makina-erremintaren sektorean diharduten enpresak euskal industriaren oinarri dira, eta berebiziko garrantzia dute Debabarrenean. Makina-erremintak pisu handia izan du eskualdeko industriaren historian (horren erakusgarri, Elgoibarren dagoen Makina-Erre-



Makina-erremintaren azoka Barakaldoko BEC erakustokian.

BIEMH

minta Museoa) eta gaur egun ere enpresa asko dira bailaran sektore horretan dihardutenak.

AFMren azken txostenaren arabera, makina-erremintaren sektoreak susperraldia bizi du pandemiak eragindako gorabeheren ondoren eta, 2021ean fakturazioa %18 hazi ostean (igoera 1.571,20

milioi eurokoa izan da), 2022an %7-10 igotzea espero dute. Horrela, aurreikuspenak betetzen badira, sektoreak pandemia aurreko salmenta kopuruak gaindituko ditu.

lazko bigarren seihilekoan zailtasunak izan ziren arren (osagaien eta materialen falta eta garestitzea,

inflazio-tasa handia, Txina bezalako merkatuetan sartzeko zailtasunak...), 2021ean esportazioak %23,41 hazi ziren 2020arekin alderatuz eta AEB, Italia, Alemania, Txina, Frantzia, India, Turkia, Portugal, Mexiko eta Erresuma Batua izan ziren hemengo ekoizleentzako merkatu nagusiak. Eskaerak %30 hazi dira 2019ko datuekin alderatuz eta %69,2 2020koekin konparatuz gero.

Datu horiek kontuan hartuta, sektoreak baikor begiratzen dio etorkizunari, nahiz eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkak ondorioak ekar ditzakeen. Izan ere, AFMko enpresek Errusiarekin zituzten harreman komertzialak eten dituzte, baina klusterrekoek diotenez "kaltetutako operazioak ondo estalita daude eta, gainera, sektorearen salmenten %1-3 besterik ez ziren egiten Errusian, batez ere aeronautikarekin, trenekin eta energiarekin zerikusia zutenak".

**Aurreikuspenak betetzen badira, sektoreak pandemia aurreko salmenta kopuruak gaindituko ditu**



Enpresek harremanetarako baliatzen dute azoka. BIEMH

# Elesa Ganter Iberica

“GURE ASMOA DA AURTEN BISITARI KOPURU ERREKORRA JASOTZEA”

Elesa+Ganter Iberica SL Soraluzeko Mendiola industrialdean kokatuta dagoen enpresa da, zehazkiago esateko, mundu mailako osagaien merkatuan liderrak diren Italiako Elesak eta Alemaniako Ganter etxeek 1997an sortu zuten joint ventura. Filialak makinenzako osagaiak ekoizten ditu: bisagrak, imanak, erruberak, ixteko eta estutzeko elementuak... Azken 11 urteetan, hazkunde ikusgarria izan du %750 hazita eta sektoreko lider bihurtzea lortu du Iberiar Penintsulako merkatuan.

Jesus Blanco Zuzendari Orokorren esanetan, “pandemiaren ostean, sektorearen egoera esponentzialki hobetu da eta gaur egun enpresaren egoera oso ona da. 2021ean, gure enpresak marka historikoa ezarri zuen 8,5 milioi euro fakturatuta”. Filialak 25 urte bete dituen honetan, lantaldea 27 pertsonak osatzen dute eta Sorluzeko lantokiak 3.000 metro karratu baino gehiagoko instalazioak ditu, gehienak enpresak duen stock zabalari eskainiak.

Blancok azaldu duenez, azken urteotan aldaketa handiak izan dira merkatuan eta lan egiteko moduetan: “Gaur egun, unean uneko eskariekin lan egiten da, bolumen txikiko baina balio erantsi handiko ekoizpenetan. Produktu merkeak Europatik kanpo egiten dira. Gero eta herrialde arrosa-agoetara saltzen dugu, eta, gero eta konplikatua da dena. Baina ez dago besterik, hau horrela da. Edo jarraitzen duzu edo hiltzen zara. Ez dago besterik”.



Elesa Ganterreko komertzial taldea. ELESÁ GANTER



Produktuen gama. ELESÁ GANTER

## Azokari begira

Blancoren ustez, ekainean BECen egingo den makina-erremintaren biurteko azokak “funtsezko garrantzia” du sektorearentzat eta sektorearen egoeraren “adierazle ezin hobea” da, “erakusketari kopuruagatik eta bertan ezagutu daitezkeen produktu eta teknologia berriengatik”.

Aurtengo azoka arrakastatsua izango dela aurreikusten du Blancok: “Bi urteren ostean, fabrikatzaile eta hornitzaileekin harreman zuzena izateko gogo handia dago. Gure asmoa da bisitari kopuru errekorra jasotzea”. Horretarako, Elesa Ganterrek azken urteotan merkaturatu dituen produktu berri guztiak erakutsiko ditu bere Barakaldoko azokan. Zuzendari Nagusiak garbi du zein den Elesa Ganterren helburua aurtengo edizioan: “enpresaren presentzia mantentzea eta gure jarreraren sendotasuna berrestea”.

**“Bi urteren ostean, fabrikatzaile eta hornitzaileekin harreman zuzena izateko gogo handia dago”**

JESUS BLANCO

# Danobat Group

DANOBATEK AEROSORGAILUEN PALAK EGIAZTATZEKO SOLUZIOA ERAKUTSIKO DU BEC-EN

Danobat Group Mondragon Taldeko kooperatiba talde arrakatsuenetakoa da, makina-erremintaren sektorean prezisio eta tamaina handiko makinak ekoizten dituena, Danobat eta Soraluze markapean. Hornitzen dituen sektore nagusien artean aeroespaziala, trenak, automobilgintza, energia, petrolio eta gasa daude. Hala, Deba bailarako taldeak ia 226 milioi euro fakturatu zituen eta, gaur egun, 1.300 langile ditu munduko hainbat herrialdeetan zehar dituen 15 ekoizpen guneetan banatuta: Deba bailaran, Alemaniaren, Erresuma Batuan, Herbeheretan...

Pello Rodriguez Danobatgroupeko Zuzendari Orokorraren esanetan, makina-erremintaren sektoreak, "oro har", pandemia aurreko salmenta- eta esportazio-mailak berreskuratu ditu eta 2022ari begira dio, urte hasierak "ekitaldi ona" iragarri duela, "merkatu nazionala eta automobilgintza zein aeronautika bezalako sektoreak moteldu diren arren". Nazioartean ere "Errusia eta Ukrainaren arteko gatazkak eragindako hornidurakateen egoera konplexua eta arazo logistikoak eta Txinako gobernuaren COVID zero politikak sortutako ziurgabetasuna gorabehera", sektoreak aurrera egingo duela uste du, "industria-sektore gehienak inbertitzen eta eskaerak egiten" jarraitzen dutelako. Danobatgroupi dagokionez, "2022ko lehen lauhileko erritmoari eutsiz gero", 2019ko datuak errekuperatuko dituelakoan da Rodriguez.



Danobatek puntako teknologiarekin ekoiztutako makina. DANOBAT

**Azokarako nobedadea: Endity** Zuzendari Orokorraren esanetan, BIEMH azoka "erakusleho ezin hobe da sektorean dauden azken garapenak erakutsi eta sektoreko eta ekosistema osoko eragileekin elkarreragiteko ere". Alde horretatik, Zuzendari Orokorraren ustez bihurtzea aukera ona da Danobatgroupeko kooperatibek, "Danobatek, Soraluze eta Idekok, euren ibilbide zabalaren berri" eman dezaten. Gainera, aurreko, "lehen aldiz", balio erantsi handiko piezen ekoizpenerako makinez gain, Endity Danobatgroupen enpresa berriak "aerosorgailuen pa-

lak egiaztatzeke eratu duen soluzioa" erakutsiko du BECen. Horixe izango da Danobatek azokara eroango duen nobedade nagusia.

Bestalde, aurreko, "pertsonen eta talentuaren aldeko apustua eginez", Danobatek Working Talent Hub industria-enplegu foroan ere parte hartuko duela iragarri du Rodriguezek.

**"Erakusleho ezin hobe da azken garapenak erakutsi eta sektoreko eragileekin elkarreragiteko"**



Kooperatibako langileak. DANOBAT

25 YEARS  
Elesa+Ganter  
IBERICA

elesa+Ganter<sup>EG</sup>

## ELESA+GANTER IBERICA EN BIEMH 2022

EZAGUTU GAITZAZU  
GURE STAND-EAN:  
Ekainaren 13tik 17ra

BEIC!  
1 Pabiloia  
F21 Stand-a



\*Ezagutu gure produktu katalogoa [elesa-ganter.es](http://elesa-ganter.es) webgunean  
eta jarrai gaitzazu hemen: [in](#) [yt](#) [f](#) [ig](#)



DESIGNED FOR ENGINEERING

+34 943 75 25 20

[info@elesa-ganter-iberica.com](mailto:info@elesa-ganter-iberica.com)

# DANOBATGROUP



SORALUCE



DANOBAT

## DOITASUNA GARA AUTOMATIZAZIOA GARA

Fabrikazio aurreraturako  
abangoardiako teknologia gara.



31BIEMH  
YOU MAKE IT  
BIG AGAIN

1 PABILOIA  
C-09 Stand-a

[danobatgroup.com](http://danobatgroup.com)





## Cisnerosek irabazi zuten Erreginaren Kopako Eibarko hirugarren txanda

Gure herrian amaitu zen aurreko asteburuan GPS 7s Iberdrola Erreginaren Kopako aurtengo edizioa, Unben jokatuak hirugarren jardunaldiarekin. Errugbiko modalitate olinpikoan jokatuak azken txanda horretan Cisneros izan zen garaile, finalean txapela irabazi duen Sant Cugat-i 21-14 gailenduz. Sant Cugat aurretik A Coruñan eta Sant Cugat-en bertan jokatuak jardunaldietan nagusitu zen eta, Eibarko finalerdietan Majadahondari irabazita, txapela ziurtatu zuen. Cisneros eta Majadahonda geratu dira, azkenik,



Sant Cugat-en atzetik. Kontrako zentzuan, CR Leon azken sailkatuak GPS Iberdrola mailari agur esandio eta bere tokia igoerako Challenge Torneoa irabazi zuen Jabatos RC-k hartuko du hurrengo edizioan.

Eibar Rugby Taldeari dagokionez, etxean jokatzeko postu bat irabaztea ekarri zion, hemen seigarren amaitu baitzuen; dena dela, azken sailkapenean zazpigarren geratu da, A Coruñan eta Sant Cugat-en izan

zituena postuan, hain zuzen. Zapatuak jardunaldian eibartarrek 17-12 irabazi zioten CRAT A Coruñari, jarraian gero txapelak izango ziren Cisnerosekin 21-17 galtzeko eta, egun horretako azken partiduan, CR Leon taldeari 29-0 irabazteko. Domekako jardunaldian, bestalde, Sant Cugat-ekin 21-5 galdu eta gero, Turiari 10-5 irabazi zioten eta, bosgarren posturako borrokan, Olimpico Pozuelorekin 17-7 galdu zuten.

## Atleta gazteenek bikain jardun zuten Gipuzkoako taldekako txapelketan

Alebin mailako nesken bi talde aurkeztu zituen Klub Deportiboak Tolosan jokatuak Gipuzkoako txapelketan. Lehenengo taldeak brontzezko domina lortu zuen, urrezkoa bi puntu eskasera izanik; bigarren taldeak ere maila bikaina erakutsi zuen eta, 12 taldetik, zaz-

pigarren sailkatu zuen. Errelebotan ere lehen taldeak zilarrezkoa irabazi zuen eta bigarrena laugarren sailkatu zuen, ia biak podiumean.

Asteburu honetan jokatuak den maila absolutuko Gipuzkoako txapelketan, bestalde, Deportiboko 14 atleta izango dira parte hartzen.



## Eskubaloiko zilarrezko mailarako igoera fasea jokatu da Eibarren

Gizonezkoen eskubaloiko Ohorezko Zilarrezko ACE Mailara igotzeko fasea hartuko du Ipuruak gaurtik domekara bitartean. CD Santoña, Balonmano Ikasa eta Oar Gracia Sabadell taldeek lehiatuko dute Arrate Eibar Eskubaloiarekin lehen postuaren bila. Arrateren partidua honakoak izango dira: gaur 19:45ean Sabadellen aurka, bihar 18:45ean Ikasa aurkari dutela eta etzi eguerdiko 12:30ean Santoñarekin aurrez aurre azken partiduan. Partidu guztiak biltzen dituzten bonuak salgai daude Eibar Eskubaloia webgunean eta T. Etxebarria kaleko EzDok tabernan; prezioa 25 euro da. Hori bai, bazkide guztiek hiru egunerako doako bonoa jaso dezakete. Eibar Eskubaloiak bigarren urtez jarraian jokatu du igoera fasea.

## Ipuruako gimnastek hitzorduak dituzte Gasteizen eta Durangon asteburuan

Irunen jokatuak Gipuzkoako amateur mailako txapelketan Ipurua klubeko gimnastek goi postu kopuru handia eskuratu zuten eta, beste behin, Tania Nagornaia, Miriam Merino eta Natalia Urmakaevak osatutako talde teknikoaren eskua ikusi zen gimnastek egindako ariketetan. Ipuruako 15 gimnastek hartu zuten parte eta, esaterako, jubencil B mailako gure herriko talde biek lehen bi postuak lortu zituzten. Maila indibidualen June Txurruka izan zen txapeliduna eta, aparatuetan, Maria Horcajok urrea irabazi zuen pelotarekin. Kadete mailan lehiatu zuten hiru gimnastek ia plenoa egin zuten, txapelidunaren atzetik sailkatu zirelako Yuma Otaľvaro (bi-

garren), Lia Romano (hirugarren) eta Saioa Rodriguez (laugarren). Seniorretan, azkenik, Nahia Zenarruzabeitiak brontzea irabazi zuen eta Naroa Perezek laugarren amaitu zuen. Guztiek lortu zuten domekan Durangon jokatu den Euskadiko txapelketarako txartela.

Ipuruako federatuen mailakoei dagokienez, Arrate Baskarnek Euskadiko banakako txapelketan hartu zuen parte. Hiru aparatuetan erabiltzen dituzten modalitate horretan eibarrak brontzea bereganatu zuten Espainiako txapelketarako sailkatuz. Klubeko beste senior guztiek txartel horren bila irtengo dute bihar Gasteizen jokatu den txapelketan. Nahia Arguiz, June Heredero, Izaro



Arrate Baskaran Ipuruako gimnasta.

Altuna, Sara Aranguren eta Indira del Pinok osatutako boskotea taldeka ahaleginduko da Espainiako Koparako sailkatzen.

## 37 mendizale izan ziren Deporrekoen azken irteeran

Aurreko zapatuan Nafarroa Beherea eta Garaian egindako ibilbidea, “polita izanda ere, dexente gogortu zuen izandako beroak”. Eguraldi garbi eta sargoriarekin egin zuen 37 mendizaleek osatutako taldeak prestatutako ibilbidea, Bidarrain hasi eta Amaiuurren amaitzeko. Tartean 965 metroko Alkazuriko tontorra, “eguneko aldaparik gogorrenarekin”, eta Gorramakil eta Gorramendi gainditu zituzten, igoera zein jaitsiera egzistenteetan.

Datorren asteko zapatuan, ekainak 4, apirilaren 2an “alerta larriaren geundelako” bertan behera laga behar izan zuten irteera egingo dute. Deba Bailararen Itzuliaren 6. etapa izango da hori, Leintz Gatzagatik Elgeara eramango dituen, tartean



944 metroko Elgeamendi/Albiturri gainditzeko. Guztira 16 kilometro izango dira, “lau-bost orduko ibilbide erosoarekin”. Aukera bikaina, beraz, inguruko mendi eta parajeak ezagutzeko.

### Finalista Eguna

Hurrengo egunean, ekainak 5, eskola mendizaleen jaia ospatuko dute Klub Deportibokoek, urteroko Finalistaren Eguna. Egun horretan

amaitzen da eskoletako ikasturteko mendi egutegia: “Hileko txangoetan, batez beste, 60 ikaslek hartzen dute parte”. Finalista Egunean 09:00etan elkartuko dira Deporren azpian azken txangoa egiteko Arratera; eta, behin goian, dominak banatuko dira 12:30etik aurrera, jarraian piskolabisari ekiteko. Aurten 54 umek eta hiru helduk jasoko dituzte domina horiek, azken horiek ehun mendi amaitu dituztelako.



## Urki FT-ko taldeek amaitu dute denboraldia

Eta ekainaren 10ean Ipur sagardotegian egingo duten ohiko afarian agurtuko dute aurtengo denboraldia. Aurten Urki foball klubak 182 gazte izan ditu, bederatzi taldetan banatuta, hainbat ligatan parte hartzen. Gorenengo Erregionalean jokatzen duen talde nagusia Ohorezko Erregional Mailara igotzeko fasera-ko sailkatu zen, seigarren amaitzeko. Jubeniletan, Ohorezko Mailakoak mailari utsi dio, arazo barik; I. Mailako B taldeak (*argazkian*) Gorengo Mailara igotzea lortu du, laugarren izanda bere multzoan;

eta I. Mailako A taldeak, Gorengo Mailara igotzeko sailkatu arren, ez zuen helburua lortu. Kadeteetara pasatuta, Ohorezko Mailakoa Euskal Ligara igotzeko sailkatu bazen ere, ezin izan du azkenean; gauza bera gertatu zaio I. Mailako taldeari. Infantil mailako taldea Txapeldunen Ligan sartu zen eta bigarren amaitu zuen bere multzoan; eta Infantil Txikietan, Urki seigarren izan da bere multzoan. Azkenik, alebiken eskola kirolean jardun dute, lehenengo urratsak emanez foball 7 modalitatean.

## Euskal Jaiko I. Pala Txapelketaren finala zapatu goizean jokatuko da Astelenan

Eibarko Klub Deportiboko Pilota Batzordeak antolatutako Euskal Jaiaren programazioaren barruko I. Pala Txapelketak bihar izango du finala. 12 bikoteek hartu dute parte lehenengo edizio horretan eta, azken asteotan jokatutako kanpora-



keten ondoren, David/Lombraña eta Azpilikueta III/Iosu bikoteek lortu dute final horretarako txartela. Azken egunotan jokatutako finalerdietan nagusi izan ziren aipatutako bikoteak: hilaren 18an jokatutakoan David eta Lombraña Apa eta Unda baino gehiago izan ziren (25-13) eta, martitzen honetan, Azpilikuetak eta Iosuk ere Larra eta Korta atzean laga zituzten (25-16). Antolatzaileek diotenez, “badago palan jokatzekeo zaletasuna herrian; torneoarekin jarraitzeko asmoa dugu”.

## Eibarko Txirrindulari Elkarte Sariaren bosgarren edizioa jokatuko da domekan

Kadeteen mailako lasterketaren 5. edizioak, Untzagatik abiatuta, Azitaingo errotondan izango du hasiera ofiziala etzi goizean, 10:30ean, eta handik ordu eta erdira pasatxo amaituko da Urkizu pasealekuan kokatuko den helmugan. Parte-hartzaileek 68 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Eskoriatzaraino joan eta, han buelta emanda, Arrasaterantz jotzeko, ondoren San Prudentzioko errotondan Oñatirako bidea hartzeko. Behin Zubillaga auzoan, zuzenean joko dute helmugaren bila. Lehenengoak 12:12ean bueltan Urkizuko helmugan izatea aurreikusten dute antolatzaileek.



## Garajes Garcia - Txoko foball-zaletuaren Kopako finala zapatu goizean

Bar Txoko Ligako txapelduna Kopako txapela ere eskuratzen aha-legenduko da, aurreko asteburuan jokatutako finalerdian JMR Tanquemans taldeari 4-2 irabazi eta gero. Oraingoan Garajes Garcia izango du aurkari, azken honek America Sport-ekin bana berdindu ondoren, penaltietan finalerako txartela bereganatu zuelako. Finala zapatuan jokatuko da, goizeko 10:00etan hasita, Unbeko beheko zelaian. Amaieran, 12:00etan abiatuko den ekitaldian, denboraldiko sari guztiak banatuko dira Unbe tabernan.

# “Taldea introspektiboa gara, geure buruaz egiten dugu berba abestietan”

MIKEL PIZARRO ETA ANDONI CONDE • We are apes, Hello!



Mikel Pizarro eibartarrak eta Andoni Conde ermuarrak osatzen duten 'We are apes, Hello!' taldeak bere hirugarren EPa argitaratu dute: 'Something happier'. Diskoak bost abesti ditu eta Bittor Sarasketa kaleko Zaizoi tabernan egin zuten aurkezpen ofiziala.

**H**ain zuzen ere Zaizoin geratu gara, euren etxean, lehen eskutik diskoaren nondik norakoak ezagutzeko. Bikotea oso pozik dago lortutako emaitzarekin eta taldeak lortu duen heldutasunagatik, urtero-urtero aurrerapausoak ematen baitituzte. 'Something happier' beste urrats bat da bide gozoa duen ibilbidean eta, lan berria euskarri digitalean entzungai egoteaz gain, biniloak ere jarri dituzte salgai.

**'Something happier' da diskoaren izenburua. Pozik egoteko modukoa da diskoa ateratzea?**

ANDONI: Beno, izenburuak abestien letrekin kontrastatzen du (barreak). Ingeleseaz egiten ditugunez, batzuk ez dira gure letrez jabetzen eta gauza alaiet buruz abesten dugula uste dute.

MIKEL: Letra tristeak eta musika alaiak egiten dugu. Egia da, hala ere, disko honetan argi eta garbi positiboa den abesti bat dugula: 'Moving on'. Aurrera egiteko animatzen duen abestia da.

**Diskoak Barakaldoko 'Hiriko Soinuak' saria irabaztetik sortu da. Nola gertatu da hori?**

ANDONI: Bitxia izan da. Pandemiak bete-betea harrrapatu gintuen abestien konposaketak egiten, baina etxean geratu ginela aprobetxatuz abesti bat sortu nuen itxialdian. Orduan, konfinamendua amaitu eta berehala, norbaitek 'Hiriko Soinuak' lehiaketaren Instagram kontuan etiketatu gintuen, lehiaketa irabazi genuela esanez.

MIKEL: Berria bat-batean iritsi zitzaigun! Bikaina izan zen, diskoa non grabatuko genuen pentsatzen genbiltzalako eta lehiaketaren saria disko bat grabatzea zelako.

**Irabazi arren, zuen asmoei mugak jarri zizkieten edo pentsatuta zenutena egin ahal izan zenuten?**

ANDONI: Eñaut Gaztañagarekin 'Gaztain' estudioan grabatu nahi genuen aspalditik, baina lehiaketakoek 'Gaua' estudioa eraman gintuzten. Grabatu aurretik abestiak amaitzeko denborarik izan ez genuenez, estudio egunak aurre ekoizpenak egiteko aprobetxatu genituen. Beraz, estudioa entsegu bat izango balitz



Mikel Pizarro eibartarrak eta Andoni Conde ermuarrak osatzen dute 'We are apes, Hello!' taldea. WE ARE APES, HELLO!

bezala prestatu genuen eta estudiokoekin abestiei forma eman genien jo ahala. Esperientzia zoragarria izan zen. Kantuak grabatu ondoren, Eñauti eraman genizkion eta berak egin zituen nahasketak.

**Diskoak bost abesti ditu. Zer bilatu duzue? Nolako diskoa dela esango zenukete?**

MIKEL: Normalean ez dugu ezer egitea bilatzen, ez dago ideia orokorrik, baina azkenean abestiak bat datoz, antzeko gaia lantzen dutelako: tristura (barreak).

ANDONI: Gureak ez dira disko homogeenok gaiei dagokienez, baina letrek existentzialismoa, beldurrak, antsietatea... lantzen dute. Ez dago kritikarik edo protestarik, adibidez. Musika talde introspektiboa gara.

MIKEL: Geure buruaz egiten dugu berba abestietan, momentuz.

**Hirugarren diskoa kaleratu duzue dagoeneko. Nola-ko momentuan zaudete?**

ANDONI: Inoiz baino hobeto gaude! Demaseko aldarrean, gogotsu, zuzenekoetan jotzeko gogoz, lagundu nahi gaituztenekin harremanak sendotzen, inoiz baino kontzertu gehiago jotzen...

MIKEL: Lan handia egin behar izan dugu horrela egiteko, baina lan gogorrek emaitzak eman ditu.

**Musika egiteaz gain, taldearen irudia asko zaintzen duzue, diskoaren diseinua oso landua da, produktuak saltzen dituzue eta Wakame management sortu duzue. Zer da Wakame?**

ANDONI: Musika taldeak autogestionatzeko eta kontzertuak bilatzen laguntzeko sortu dugun elkarte kulturala da. Horrela, izaera profesionala eman nahi diegu indibiduo moduan egin izan dugun lanari (promotoreekin edo jaialdiekin harremanak egin, adibidez).

MIKEL: Elkartean 'Wicked Wizzard' taldea eta gu geu gaude momentuz, baina Wakameren Instagram kontuaren bitartez edozein talde gurekin harremanetan jarri daiteke.

ANDONI: Disko berriarekin eta kontzertuekin nahiko lanpetuta gabiltza, baina oso egitasmo ona izan daitekeela uste dugu. Baita diskoak editatzeko ere, adibidez.

MIKEL: Gu horrelako laguntzen bila ibili izan gara eta, beraz, laguntza hori eskaini nahi diegu behar hori duten taldeei.



LEIRE NARBAIZA

## Modak

Dana da modia. Bigotia edo bizarra eukitzia, takoiak janztia, ardaurixia edatia, rabak jattia, raeggeton entzutzia, selfixak egittia, foballera juatia... dana. Persona original batek burutaziñua euki, egitten hasi eta modan jartzen da kontu barrixa. Askotan jakin be ez dakigu zelan aillegatzen dan danon ahotan egotera. Batzuetan kasualidadez edo inspiraziñoz izango da, baiña beste batzuetan badakigu publizidadia be egoten dala tartian. Kuestiñua da lehen egitten ez genduan zeozer, oin egin egitten dogula; eta kontrara, egitten gendua egittiari lagatzen detsagula. Beti bardin jokatzia aspergarrixa ei da eta.

Modiak badaka pixka bat kapritxotik, eta batzuk laburrak izaten dira, kaltzetin zurixak takoiekin janztia moduan, zorionez. Beste batzuk luziaguak bihurtzen dira eta "betittik" egon dirala begittantzen jaku, poteua letxe. Baiña aurrerapen sozialak ez neuke sekula santan esango moda kontua diranik.

Ez neuke esango Olympe de Gougesek Emakumearen eta Emakumezko Herritarraren Eskubideen Adierazpena idatzi zebanian moda kontuengaittik egin zebanik, ezta sufragistak boto eskubidia modaz aldarrikatzen zebenik be. Ez dot uste Josefa Gervasia Agirrebengoa, Josefa Suinaga eta Maria Josefa Atxa modiagaittik etorri ziranik karruan Aginagatik Eibarrera lehenengoz botua emotera 1933an. Ez dot pentsatzen Maria Magunazelaiak bizikleta karreretan parte hartzen zebanik moda kontuengaittik. Ezta Mauriziak horregaittik panderua jo be. Joane Somarribak ez zittuan Giroa eta Tourra irabazi modan zegualako. 2019ko martxuan 8xan ez genduazen milaka andrazkok kaliak bete modia zalako. Ez.

Izan be, emakumien eskubidiak ez dira modia. Parekidetasuna lortzia ez da kapritxua, burutaziño zorua. Bardintasuna premiñia da androndako edozein inguru eta arlotan, *ar*-duradun askok siñistu ez arren. Eta lortuko dogu, ez izan dudarik, *moda* barrixak gero eta gogorrago jotzen dau eta.

**"Emakumien eskubidiak ez dira modia. Parekidetasuna lortzia ez da kapritxua, burutaziño zorua"**



Antzerki Laborategiko haur eta helduek sei saio eskainiko dituzte. MAITANE CAMPOS

## Antzerki Laborategiaren fruituak ikusteko aukera egongo da ekainaren 1ean

Haurrek eta helduek hartu dute parte Antzerki Laborategian (22 haur eta 32 heldu) eta, talde guztiek egindako lana ikustekoa denez, sei saio eskainiko dituzte eguaztenean. Lehenik, 17:45ean, umeen hiru talde igoko dira eszenatoki gainera; eta gero, 19:45ean, helduen hiru taldeen txanda iritsiko da.

Sarrerak haurren zein helduen saioak ikusteko erosi ahal izango dira 3 eurotan bakoitza, eta bi saioak ikusteko ere erosi daitezke, noski. Erostea, Coliseoko leihatilan eskuratu daitezke astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era, edo saioa hasi baino ordubete lehenago; eta baita Kutxabank bitartez ere.

Coliseoan ikusiko diren antzezlanak Hernandok sortu eta zuzendu ditu. “Antzezlan bakoitza talde

bakoitzaren ezaugarri eta nortasunera egokitzen saiatu naiz”, diosku, “beraz, antzezlanak ezberdinak dira, teknika eta gai ezberdinak erabili ditugularik”.

**Haurren proposamen ezberdinak** ‘Xaharrak’ izango da haurren lehen ikuskizuna eta proposamen berezia dakarkigute: “Eibarko zaharren egoitza bateko koadrila batek milioi bat euroekin ihes egiten du eta hor hasten da euren abentura”, diosku Hernandok.

Bigarren taldearen proposamena ‘Espaziora bidaia’ da. “Objektu-antzerkia egingo dute eta objektu baten bitartez istorioa kontatuko dute”, dio zuzendariak.

Haurren azken taldearen ikuskizuna ‘Kolore-kolore’ da eta gi-

Eibarko Antzerki Laborategiak urrian ireki zuen teloa. Hiru hilabete iraun zuen lehen saioak, baina arrakasta ikusita, ekimenarekin jarraitzea erabaki zuen Udalak eta, orain, urtean zehar landutakoaren zatitxo batez gozatzeko aukera izango dugu ekainaren 1ean, eguaztenean, Coliseoan. Irene Hernando Antzerki Laborategiaren arduraduna “oso pozik” dago urtean zehar egin duten lanarekin eta datorren ikasturtean Antzerki Laborategiaren jarraitzea gustatuko litzaioke. “Partehartzaileek ere horrela eskatu dute”, diosku.

zartean hainbeste eztabaidatu den gai bat jarriko dute mahai gainean: “Lau koloreen arteko epaiketa izango da, gizakien kolore gutukoena zein den erabakitzeko”, azaldu digu Hernandok. “Horrela, koloreekin eta emozioekin egingo dute antzerkia”.

### Antzerki-teknika ezberdinak

Helduen artean ‘Tok-tok’ izeneko lana da talde baten proposamena. “TOC direlako inguruan jardungo dugu, gure estiloan, testu-antzerkia eginez”, diosku zuzendariak.

Bigarren proposamena ‘Clown town’ da eta, izenburuarengatik atzeman daitekeen bezala, clown teknika erabiliko dute. Sketch ezberdinak egingo dituzte antzerki mutua, umore absurdua eta beste hainbat gauza landuz.

‘Bizitza is life’ da azken lanaren izenburua. “Programa bat azalduko da eta, bertan, bizitza ‘normal’ bat eramateko pautak emango dira, ironiaz beterik. Antzerki-fisikoa landuko dute antzezleek”, argitu digu Hernandok.



Antzerki laborategia. MAITANE CAMPOS





## Ipurterre leihaketako sariak banatu dituzte

Eguaztenean banatu zituzten aurtengo Ipurterre Ipuin eta Gutun Lehiaketako sariak Unibertsitate Laboraleko areto nagusian. Eskolekin elkarlanean ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen lehiaketak XXVIII. edizioa bete du aurten. Eibarko LH eta DBHko ikasleek 1.000 lan inguru aurkeztu dituzte eta hauek izan dira irabazleak: LH 1-2 mailan Paule Martin (J.A.Mogel); LH 3-4 mailan Bittor Navarrete (J.A.Mogel); LH 5-6 mailan Pello Aranzeta (J.A.Mogel); DBH 1-2 mailan Elga Ariznabarreta (Eibar BHI), eta DBH 3-4 mailan Malen Aguirreamalloa (La Salle Azitain). Ekitaldia girotzeko Tor magoa etorri da beste behin ere Eibarrera, eta aho bete hortz utzi zuen bat baino gehiago bere trikimailuekin. Ekitaldi guztia YouTuben ikus dezakezue, QR kodea eskaneatuta.



## Aldaketa klimatikoari eskainitako piano kontzertua

Bihar 12:30ean eskainiko dute Isabel Laspiurren piano ikasleek ikasturte amaierako ikuskizuna, Coliseo antzokian. Ludovico Einaudik Greenpeacek ozeanoa babesteko egindako kanpaina bati laguntzeko Artikoan eskaini zuen kontzertuan oinarritutako emanaldia izango da eta sarrerak 3 euro balio du.

## Astlehenean itxiko da Mercedes Kareaga Beka eskatzeko epea

Mercedes Kareaga Bekaren lanak aurkezteko epea astlehenean, maiatzaren 30ean amaituko da. Beka honekin Eibarko herriarentzat interes berezia duten historia arloko ikerketa-proiektuak sustatu eta zabaldu nahi dira. Aurreneko edizio honetan Mercedes Kareagaren beraren biografia izango da ikergaia. Oinarri guztiak ikusteko eta eskaerak egiteko Udalaren webgunera jo daiteke.

## Argazki Rallya domekan



Klub Deportiboko Argazki Taldeak antolatuta, domekan egingo da Argazki Rallya. Izen-ematea egunean bertan egingo da, 08:30etik 09:30era Deporen eta amaiera bertan izango da, 14:00etan. Zuri beltzean paperean eta digitalean koloretan har daiteke parte. Oinarriak irakurtzeko [www.deporeibar.com/argazkia](http://www.deporeibar.com/argazkia) helbidean begiratu.

## Idazlearekin Harixa Emoten

Juan San Martin Udal Liburutegiak ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatzen duen "Idazlearekin Harixa Emoten" irakurle taldearen hurrengo saioa martitzenean izango da, 19:00etan Portalean. Uxue Alberdi euskal idazle eta bertsolariak "Dendaostekoak" nobelari buruz egingo du berba, Antxon Narbaizak zuzenduko duen saioan.



## Eibarko Musika Eskolarako matrikulazioa zabalik dago

Aste honetan zabaldu da hurrengo ikasturterako matrikulazio epea Eibarko Juan Bautista Gisasola Musika Eskolan. Izen-ematea Pegoran egin ahal izango dira, kontuan izanda epe ezberdinak daudela: ekainaren 1era arte, matrikula berritzeko; ekainaren 6tik 10era, lehen aldiz instrumentuan; eta ekainaren 22ra arte ikasle berriak. Informazio gehiagorako Interneten begiratu daiteke.



soluzioa



**AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK**

**SARRERA** ▶

**LABIRINTOA**

**IRTEERA** ▲

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

	7	9				4		
8					4			7
4			1			3		
3				7			5	
	2						1	
	1			5				3
		5			9			4
9			6					5
		3				9	6	

2	9	6	5	7	2	8	1
5	1	0	2	9	2	7	0
7	2	9	0	1	1	5	9
6	7	2	5	8	1	4	
9	1	2	9	0	8	7	2
9	8	0	2	0	1	0	9
2	6	5	9	2	1	0	9
1	2	0	6	5	9	2	8

soluzioa

**SUDOKU**

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

8				5			1
	2						3
				9	7	8	6
			8	5		6	
3	2					5	4
		5		3	6		
1		3	7	2			
	9						7
2			9				8

soluzioa

8	5	1	0	8	2	7	2
2	2	0	9	1	8	8	8
0	9	8	2	2	0	0	1
2	1	0	9	6	9	5	8
9	0	6	2	1	2	0	0
0	0	2	0	8	9	1	2
9	9	4	0	2	1	0	0
5	0	2	1	0	9	0	2
1	2	0	6	5	9	2	8

# Maiatzak 27 / Ekainak 2

## BARIXAKUA 27

### 57. EUSKAL JAIA

17:00/19:00 Kalian Jolasian. Eibarko Bizikleta Plaza.

19:30/21:30 GOTx Game of Txaranga elektrotxaranga (herriko kaleetan).

22:00 McOnak. Untzaga (karpan).

01:00 Mugi Panderoa. Untzaga (karpan)..

### KONPONFEST

18:00/22:00 Pintxopotea.

Kontzertuak: Amildegi eta Galtzagorriak. Eibarko gaztetxia.

### DANTZA

19:30 "Kaxa Zirkoa". Coliseo.



## ZAPATUA 28

### 57. EUSKAL JAIA

10:00/12:00 Pala txapelketa (finala). Astelena frontoia.

10:00/14:00 Artisau eta Baserritarren Azoka. Herrikirolak. Bertsolariak. Talo postua (Gure Esku). Toribio Etxebarria kalea.

19:00 Trikipoteoa, kale animazioa.

20:00 Kittu musika taldea.

21:30 Kantu afaria. Kittu musika taldearen abestiak eta erromeria, Jainaga eta Narbaizarekin. Untzaga (karpan).

### GURE ESKU

10:30 Taloen salmenta. Pirinioetako Bidearen kamisetak eta izen-ematea. Toribio Etxebarria (Depor parean).

## MUSIKA

12:30 "Aldaketa klimatikoa eta pianoa", Isabel Laspiur-en piano ikasleen emanaldia. 3 euro. Coliseo.



## DOMEKA 29

### ARGAZKI RALLYA

08:30/09:30 Izen-ematea eta hasiera. Amaiera ordua: 14:00. Eibarko Klub Deportiboa.

### 57. EUSKAL JAIA

11:45 Euskal Jaiko Kalejira (Urkizu-Untzaga).

12:30 Dantza ikuskizuna. Untzaga.

14:30 Herri bazkaria. Untzaga (karpan).

17:00 Erromeria. Untzaga.

19:00 Larrain-dantza. Untzaga.

20:00 Larrain-dantza. Deportibo parean.

## MARTITZENA 31

### IBILBIDE OSASUNTUAK

10:00 Herritar guztientzat zabalik, 5 kilometro inguruko ibilbidea, Minbiziaren Kontrako Elkarrekin antolatuta. Ardantza 11tik abiatuta.

### HARIXA EMOTEN

19:00 Idazlearekin Harixa Emoten. Uxue Alberdiren "Dendaostekoak". Portalea.

## EGUAZTENA 1

### ANTZERKI LABORATEGIA

17:45 Umeen taldeak.

19:45 Nagusien taldeak. 3 euro. Coliseo.

## UEU FIESTA

18:00 UEU festa.

Markeskua jauregia.

### TAILERRA

18:00 Energia Argitu:

"Etxeko kontsumoa tarifa elektriko berrietara nola egokitu". KZgunea (Portalea).

### DANBORRADA

19:00 Sanjuanetako umeen danborradarako entsegua.

20:00 Helduena. Beistegi eraikina (B. Sarasketa, 7).

### AURKEZPENA

20:00 Pirinioetako Bidearen aurkezpena. Topalekua



## EGUENA 2

### TAILERRA

18:00/19:00 Kanpoko landareak zaintzeko tailerra. Portalea.

### AMAÑAKO

### DANBORRADA

19:00 Amañako danborradarako haurren entsegua.

20:00 Helduena. Amañako eskola.

### MUSIKA

20:00 Eibarko Koro Gaztea. 5 euro. Coliseo.



## FRAKUSKETAK

Maiatzaren 26ra arte:

- "Eibarko eskubaloiairen historia iruditán".

(Errebal Plaza. 1. pisua)

Maiatzaren 29ra arte:

- ELENA PLAZA, EVA FRANCO, KOLDO VADILLO, OSKAR MANSO. (Portalea).

- JUAN ANTONIO PALACIOS. (Topaleku).

- XLVIII. NAZIOARTEKO

GIPUZKOA SARIA

(Untzagako Jubilatutxeko Etxea).

Maiatzaren 31ra arte:

- ARGIZAIOLA 2021.

(Klub Deportiboa).

- EIBARKO KLUB

DEPORTIBOIA. (Portalea taberna).

Ekainaren 5era arte:

- "Istripuak eta Prebentzioa.

XX. Mendeko kartelak".

(Armagintzaren Museoa).

## Eskualdeko Agenda

### ELGOIBAR

#### ANTZERKIA

27an (barixakua) / 20:30

Herriko Antzokia

"Zinemakopa" antzezlan.

Taupada Antzerki Taldea.

Euskeraz.

### DEBA

#### ANTZERKIA

27an (barixakua) / 19:30

Goazen lokala

"Bilakatu" antzezlan.

28an (zapatua) / 19:30

Goazen lokala

"Armiarma" antzezlan.

27an (barixakua) / 19:30

Goazen lokala

"Zinemakopa" antzezlan.

### SORALUZE

#### PINTURA

29an (domeka) / goizean

XXVII. Kaleko Pintura

Lehiaketa.

**Astindu ohiturak!!**

**Ogasunarekin euskaraz**

**Errenta aitortpena?**  
**Aurten ere, duda barik,**  
**EUSKARAZ!!!**

- **Autolikidazio proposamena** onartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
- **Mekanizatua egiteko**
  - ordua hartzerakoan, esan euskaraz egin nahi duzula.
  - aitortpena egiterakoan, esan euskaraz egin nahi duzula
- **Internet bidez** egitean, jaitzi errenta programaren euskarazko bertsioa, euskarazko bertsioa, eta hobetsitako hizkuntza atalean aukeratu euskara.
- **Aholkularitzaren** bat aukeratzen baduzu, adierazi euskaraz egin nahi duzula.

**Eibarren AKEBAI**

**INGURUMEN JARDUNALDIAK**

**Ekainak 1 / 2 / 5 / 6 / 8**

**EKAINAK 1 18:30-19:30 Portalea (KZgunea)**  
Energia Argitu Tailerrak: "Nola egokitu etxeko kontsumo elektrikoa tarifa berrietara erotu gabe"  
Izena emateko (maiatzaren 29ra arte): argitu@gipuzkoa.eus / 628532248 / 605757687

**EKAINAK 2 18:00-19:00 Portalea (B batzartokia)**  
"Kanpoko landare apaingarriak zaintzeko eta mantentzeko tailerra"  
Izena emateko (maiatzaren 30era arte): Pegoran  
<https://formularioak.eibar.eus/eu/kanpokolandareak>

— ALDEZ AURRETIK IZENA EMAN BEHAR DEN KASUAN, ONARPENAREN BAIJETAZPENA JASOTZEA EZINBESTEKOKA DA —

**EKAINAK 5 10:00-13:00 "Ingurumenaren Nazioarteko Eguna"**  
Eibarko ondare naturala ezagutzeko ibilbide gidatua (Usartza-Kalamua ingurunea). 4'5 km ibilbide zirkularra (erraza).  
Topagunea: Usartzako aisialdi gunea, 10:00etan. **EUSKARAZ**  
Izena emateko (ekainaren 2ra arte): arazi@arazi.eus / 943-833641

**EKAINAK 6 18:00-19:00 Eibarko Udala (pleno aretoa)**  
Eibarko zarata-mapa berriari buruzko informazio publikoa

**EKAINAK 8 18:00-19:30 Portalea (B batzartokia)**  
Energia Argitu Tailerrak: "Komunitate energetikoak: zer dira eta nola funtzionatzen dute"  
Izena emateko (ekainaren 6ra arte): argitu@gipuzkoa.eus / 628532248 / 605757687

**INFORMAZIO GEHIAGO: [ingurumena@eibar.eus](mailto:ingurumena@eibar.eus) / tel. 943-708408**

**Matrikulak zabalik maiazak 30**

**KAXA**

Espazio libre bat non norberak nahi duena izan daitekeen.

**Sortu zure KAXA!**

**f @kaxagunea** **www.kaxa.eus** **info@kaxa.eus** **689 116 104**

688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da da...**eta kitto!**-n. Zorion-agurra **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu.



Zorionak, **NAHIA** Urigoitia, hillaren 23an 9 urte bete zenduaz-eta. Musu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **AITOR!!** Martitzenian 9 urte egin zenduaz-eta!! Patxo erraldoi bat ama, aitta eta Enekoren partez.



Zorionak, **ELENE!** Domekan 9 urte beteko dozuz-eta! Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez. Segi hola-kua izaten, maitxia!



Zorionak, **AITANA,** 3 urte bete dozuz-eta. Aitxitxa eta amama, Markel anaixa eta Maialen lehengusiñaren partez.



Zorionak, **AIMAR,** bixar 3 urte beteko dozuz-eta! Patxo erraldoi bat, artistiori. Maite zaittugu. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **MALEN,** hillaren 24an 3 urtetxo bete zenduaz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Askok maite zaittugu.



Zorionak, **IZARO,** eguaztenian 10 urte bete zenduaz-eta. Musu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **ALAI!** 5 urte beteko dozuz maiazaren 30ean. Izan zoriontsu, neska haundi! Amets, aitta eta amaren partez.



Zorionak, **MIKEL** Mondragon, gaur 8 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **NIKOLE,** atzo urtetxua egin zenduan-eta. Etxekuen eta, batez be, Martinen partez.



Zorionak, **MALEN** eta **ENEKO,** domekan 7 eta 3 urte beteko dozuz- eta. Musu erraldoia eta eskerrik asko zuen pozarengaitik!! Ama eta aitta.


## ZINEA COLISEO

### 1 ARETOA

- **28an:** 19:45, 22:30
- **29an:** 20:00

**"Red Rocket"**

Zuzendaria: Sean Baker



### 2 ARETOA

- **28an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **29an:** 17:00, 20:00
- **30ean:** 20:30

**"Cinco lobitos"**

Zuzendaria: Alauda Ruiz Azua



### ANTZOKIA

- **28an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **29an:** 17:00 (1 Aretoa), 20:00
- **30ean:** 20:30 (1 Aretoa)

**"El arma del engaño"**

Zuzendaria: John Madden



### ANTZOKIA

- **28an:** 17:00
- **29an:** 17:00

**"Ana Mu etxera itzuli da"**

Zuzendaria: Christian Rytenus



# Iragarki laburrak



688 62 76 89  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.1. Salgai

- Pisu salgai Jardinetan kalean. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Pisu altua eta eguzkitsua. Dena kanpora begira. 673802614.

### 1.2. Errentan

- Logela hartuko nuke alokairuan. Kontratuarekin. 632088660.
- Pisu hartuko nuke alokairuan. Minusbaliatuentzat egokitua, igogailuarekin 0 kotan. 671101439. Carmen.

- Pisu hartuko genuke alokairuan. 3 logelakoa. 2 heldu eta 2 umeentzat. Lan egonkorra, kontratuarekin. Erreferentziak. 604120104.
- Donostian etxebizitza alokagai uztailera. Ondarreta hondartzatik bost minutura. 2 logela, egongela-jangela-sukaldea eta bainugela. Berriztuta (wifia) eta igogailuarekin. 699027734.
- Etxebizitza alokagai Deban udarako, hilabetea. 3 logela, 2 bainugela eta 2 balkoi eder. Bista paregabeak. Igo-gailua 0 kotatik. 657795876 (arratsalde).
- Zumaian 3 logelako alojamentu turistikoa asteka errentan eskaintzen da uda zein beste edozein urtarotan (gara-jea aukeran). 2019an guztiz erreformatua. Zumaia erdian dago, taberna girotik kanpo. 678222229.

## 3. LOKALAK

### 3.1. Salgai

- Lokala alokatu edo erosiko nuke zezen-plaza inguruan. Edozein egoeran dagoela. 609885710.
- Lursail/terreno bat erosiko nuke Eibarren edo inguruan. 669176108. Natalia.

### 3.2. Errentan

- Garaje itxi handia alokagai Eibar erdian, Unzaga Plaza hotelaren ondoan. 688669993.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin) eta garbiketarako egiteko. Astelehenetik ostiralera. Orduka. 642855788.

- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia bulego eta kontabilitatean. 603710317.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko udaran. 662574424.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Baita oporraldietan ere. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 643568742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 642395031.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). 631425686.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak eta gaixoak zaintzeko arratsalde eta asteburuetan. 617571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauetz ere. 722408667.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 631611201.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tituluarekin. 633946701.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 624640803.
- Gizonezkoa eskaintzen da garbiketarako egiteko eta beste edozein lanetarako. 624669438.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin) eta garbiketarako egiteko. 602490595.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko. 60384909..

## 4.2. LANGILE BILA

- Kamarera/o behar da Jaiky tabernarako. 695690784. Ana.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com
- Pertsona euskalduna behar dugu umeak eskolara eramateko. Goizez bakarrik. 626745995.
- Kamarera/o euskalduna eta esperientziaduna behar da pintxo taberna batean. 661955980.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestatzeko klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alerto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- DBH4-ko liburuak erosiko nituzke. 637587811.

### 6.2. Eman

- 1.500 piezetako puzzleak oparitzen dira. 619655583.

 **Neinor** HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

## Etxebizitzak ERREBAL PLAZAREN ondoan

Gimnasioa  
Gourmet aretoa  
Garaje eta trastelekua



Neinor Store: Bidebarrieta, 6 - Eibar

ERAIKITZEN



**900 11 00 22 • [neinorhomes.com](http://neinorhomes.com)**

# zarelako para

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_

NAN \_\_\_\_\_

Jaiotze data \_\_\_\_\_

K/K zenbakia \_\_\_\_\_

 **eta kitto!**  
euskara elkarte

**Urkizu 11**

943 20 09 18 - 943 20 67 76

[elkartea@etakitto.eus](mailto:elkartea@etakitto.eus)

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatua	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

# gremioen gida



943-206776

## ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** SERVICIOS  
TECNICOS DE  
INSTALACION



## ITURGINAK

Miguel Azpiri  
**ITURGINA**  
BEREHALAKO  
ZERBITZUA  
ematen da **635 13 38 41**

- Konponketak  
eta ordezkatzak  
ITURGINTZAN  
- Konponketak  
eta irtenbideak  
KALEFAKZIOAN

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta beheha  
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**  
PROIEKTUAK - ERREFORMAK  
GREMIOEN KOORDINAZIOA  
ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-  
605 713 168 943 744 019

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**  
HELBIDE  
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK  
info@cristaleriaacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arkitxaneko Zubian

## IGELTSEROAK

Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza  
**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobeaz  
goza dezazu

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## PINTURAK

**baglietto**  
PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak / Dekorazioa  
Errebal, 21 www.bagliettoeibar.com  
Tel: 943 201 922 bagliettoeibar@gmail.com

Tel. 667 54 89 16

**KOLORLAN**  
PINTURA LANAK S.L.

## ELEKTRIZITATEA

**THELECEP**  
TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
24 orduko  
urgentziak  
610 532 922 www.thelecer.com